

APARTE
Oibar Egia
Gizaburuaga. 13 urte

Nik badakit ez naizela arazo hau izan duen bakarra. Beharbada, zu ere hemendik iragana izango zara, baina arazo hau gutxiengo batek bakarrik jasaten duenez, posibilitate handiak daude zuk jasan ez izana. Arazo hau marginazioa da. Batzuk inkonzienteki egiten dute, beste batzuk, berriz, nahita. Marginazio mota asko daude: larruaren koloreagatik, pentsatzeko era desberdinengatik, ahulagoa izateagatik, itsusia zarelako... Ni, oraindik, eskolan nabil, eta horrexegatik exenplu horietaz hitzegingo dut, gehienbat, horretarako nire bizitzako pasadizu batzu erabiliz.

Ni beltza naiz eta harro nago, nahiz eta inoiz madarikatu neure burua. Nire bizitzak infernu baten antza paradisuarena baino gehiago izan du. Aitak alde egin zigun zerura, edo nork daki, beharbada, infernura, zortzi urte neuzkanean, ama eta ni bakarrik utziz. Hori gutxi balitz, zor mordoa utzi zigun.

Aita betidanik izan zen edatun iaioa. Goizean lanera zazpiak aldera abiatzen zen. Lauretan bukatzen zuen eta, halere, ez zen etxera itzultzen gaueko orduak izan arte. Beharbada goizaldekoak izango ziren, baina eskolara joan beharra neuka-

nez, arin oheratzen nintzen. Amak bere bila joan behar izaten zuen, aitak ez zuelako nahi izaten etorri edo ez zuelako aurkitzen etxea. Hori ez dut inoiz jakingo. Ama oso buruargia zenez, aitak dirua edaten gal ez zezan, aitaren negusiarekin hitz egin zuen, dirua berak zeukan bantuko kontu batera pasa zezan. Horrela ateratzen genuen bizia aurrera. Baina, aita hil zenean, amak emalgaldu bezala jardun behar izan zuen, dirua irabazteko.

Lau urterekin hasi nintzen auzoko eskolara joaten, zeren eta auzo txiroa izan arren, jende asko bizi baikin eta eskola bat baikeneukan. Eskolan sartu bezain laster konturatu ziren umeak ez nintzela beraien modukoa, eta orduantxe hasi zen nire bizitzako arazorik handiena MARGINAZIOA. Nire lagunek, hobeto esanda, ikaskideek, ez zuten nahi ni beraiekin ibiltzea, bidali egiten ninduten. Hori ikusirik irakaslearengana jotzen nuen babes eta laguntza bila, baina, beste ume batzuekin zegoelakoaren aitzakiaz baztertu egiten ninduen. Ni egia zelakoan esaten zidana, izkina batetara joan eta nire pentsamenduetan murgiltzen nintzen. Banekien larruaren kolorea ezberdina geneukala eta baita pentsatzeko era desberdinak ere, baina, gaztegia nintzenez, ez nuen ulertzen gertatzen ari zena. Urteak pasatu ahala konturatu nintzen, maisuak ez ninduela gogoko. Gorroto sakona, handia eta nabarmena zeukan nireganako. Beraz, bakarrik nengoen. Mundu osoa neure aurka neu-

kala iruditzen zitzaidan. Gerta lekidakeen gauzarik onena hiltzea zela uste nuen. Baina barrenbarrenetik ahots bat etorri zitzaidan esanez, bizitzaren jarraitu behar nuela, eta nahiz eta ez jakin zergatik, jaramon egitea bururatu zitzaidan, eta halaxe egin nuen.

Ikasketetan ondo nenbilenez, horrek beka bat lortzeko aukera ematen zidan. Eskolara, ikastera baino ez nintzen joaten. Han ere beraiengandik aparte zegoen leku batean uzten ninduten, zerbait kutsatu ahal izango banie bezala. Jolastorduetan irakurri eta beraien isekak josaten nituen (beltza, ikastuna, itsusia, ahula, inuxentea, atea...). Gauza bat zegoen ez nuena jasaten, ama emagaldua nuela aurpegiratzea. Orduan, borrokan hasten nintzen, eta maisuak berehalako batean hurbiltzen ziren niri errua botatzeko edo besteak errugabe bihurtzeko. Halere, nik banekien, mundua ez zela geratuko ni negarrez nengoelako, nire barrua usteltzen zegoelako, zerbaitek nire barrua zulatzen zuelako, zeren munduak ere ez ninduen gogoko eta. Lurrak ez ninduen jango, usteldurik bainengoen. Jendeak ez ninduen begiratuko, beharbada ni bezalakoak bihurtuko zirela uste baitzuten.

Etxera joatean, amari esaten nion gertatutako guztia eta honek jaramonik ez egiteko esaten zidan, gehiagorik ez. Horrek asko mintzen ninduen, eta amak hori ikustean lasai egoteko esaten

zidan, laster aurkituko zuela lan hobe bat. Hori gezurra zen, amak ere hori oso ondo zekien.

Halere, egun batean, nire pena guztiak edo ia denak bukatu ziren. Auzora gazte beltz bat heldu zen. Pat zuen izena. Gela berean geunden. Heldu bezain laster nire arazo berberaz aurkitu zen, jendeak ez zuela onartzen. Orduan, nik neure burua aurkeztu nion, eta gutxira lagun handiak bihurtu ginen. Batak besteari laguntzen genion.

Beste herrialde batetik etorria zela esan zidan. Nire modura guraso bat hilik zuen, baina nik ez bezala ama zen bizi ez zena. Bere aurreko herrian ere arazo berdinak zituela esan zidan, nahiz eta orain lagun bat izan, ni. Han ez zuen beste inor aita izan ezik. Aita zapata-garbitzailea zuen eta, argi dagoenez, oso txiroak ziren. Guzti honek, nire bizitzari bira eman zion. Nire bizi guztian gertatu zitzaidan gauza on bakarra zela uste nuen. Eta hau gutxi balitz, beste gertakari bat ere egon zen.

Behin eskolan geundela, binakako lan bat egiteko agindu ziguten, Pat eta biok batera jarri ginen. Beraz, bata bestearen etxera joaten ginen eta horrelaxe ezagutu ziren gure gurasoak. Pixkanaka-pixkanaka elkar ezagutuz joan ziren. Behin elkartu egin ziren teatrorra joateko, Pat eta biok lan egiten utziz. Hitz egiten hasi ginen. Biok konturatu ginen, bata bestea baino ilusionatuagoak geundela, gurasoak batu egin zirelako. Hasiera nahiko

zaila izan zitzaien. Haserrealdi luzeak izan zituzten, beraien erlazioa kilin-kolo jarritz, baina hiru urte iragan ondoren ezkondu egin ziren. Pat eta ni neba-arrebak gara eta beste ahizpa bat ere badugu, Lea. Nire amak emagalduta izateari utzi egin dio...

Azkenik, gauza bat bakarrik nahiko nuke esan, marginazioaren arazoa baduzu, aurkitu lagun bat, horrek dena aldatuko baitu zure bizitzan.